

BEHI EROEN GAITZA: Zer jaten dugu Hernanin?

■ Gaitza Galizian agertu da orain gutxi ■ Jendea bildurtu eta kalitateari gehiago begiratzen hasi da ■ Hernanin haragi salmenta ez da asko aldatu; ohiturak pixka bat bai.



Kepa Urreaga bere aziendari begira, Santa Barbaran.

ANIMALIEKIN eginiko pentsua janda sortzen omen da *behi eroen gaitza*. Merkatuko pentsuak zerez eginak dauden ez da jakiten askotan; dagoena ematen da. Herriko baserritarrek "ezer gutxi" dakitela diote; hemen

bertain oraindik agertu ez delako, agian. Hori bai, azken boladan askozaz behi gutxiago sartzen da mataderian.

JENDEA KEZKATUTA

Orain, koneju eta txerriki gehiago erosten omen dute;

eta *zaharraren* haragia neke-zago saltzen da. Esnesaltzaleari ere "esneak gaitzik" ba ote duen galdetzen diote... Kontsumidoreek *konfiantzak* haragia nahi omen dute, eta lehen baino gehiago begiratzen diote kalitateari. □

HARAKINEI HIRU GALDERA

- 1.- Erosleek komentatzen al dute gaia harategian?
- 2.- Aldaketarik nabaritu al duzue salmantan edo jendearen joeran?
- 3.- Zein haragi erabiltzen duzue?



Imanol Alkorta

- 1.- "Komentatu egiten dute, baina ez gehiegi ere. Badirudi guban konfiatzen dutela".
- 2.- "Guk berdin saltzen dugu, ez dugu alde handirik nabaritu".
- 3.- "Haragia bertakoa erabiltzen dugu; eta hazten dituenaren etxea ondo ezagututa gainera; ez dago nolanihi fidatzerik".



Joxe Mari Murua

- 1.- "Jendeak asko komentatzen du, beldurtu egin baita".
- 2.- "Guk gehiago saltzen dugu lehen baino. Erosi: txekorra asko, eta gainerakoak (oilasko, koneju...) lehen baino gehiago".
- 3.- "Sei urte daramazkigu pentsurik jaten ez duen ganadua saltzen. Kontu honekin behirik ez dugu ekarri ere egiten, txekorrak bakarrik".



Mariano Balerdi

- 1.- "Jendeak ez darabilki beste konturik azken aldian".
- 2.- "Guk saldu igualtsu saltzen degu. Haragia berdin eta agian koneju eta txerriki gehixeago. Denborarekin zaharraren haragiak egingo du behera".
- 3.- "Etxeko ganadua saltzen dugu; eta nahikoa ez dagoen bertako haragia, konfiantzakoa".

**Hernaniko
Kronika**
eskatu zure
kioskoan

TELEBISTAK
BIDEOAK
BIDEOKAMARAK
ETXE TRESNAK
expert
ANEXO
Segundo Izpizua, 21
Tel. 943 55 03 81
20120 HERNANI

IBAI
TABERNA - JATETXEA
k l y c
Getaria kalea 15, DONOSTIA
Tel. 943 42 87 64

Eguberriak: 12.000 bonbila Hernani argitzeko

■ Egun gutxi barru piztuko dira.



Udaletxeko langilea gruatik bonbilak jartzen Lizeaga kalean

AZAROAN hasi ziren jartzen eta dagoeneko dena pronto dago: pizteko agindua falta. Bonbilak ez daude herri osoan: Kale Nagusia, Kardaberaz, Elkano, Izpizua, Laxunbe, Txirrita, Lizeaga,

Zinko-enea, Etxeberrin eta Tilosetan jarri dituzte. Hemen gainera, arboletik arbolera metroko 5 bonbila. Berez, bonbilak *Berriak* elkartearen dira, eta jarri, udaletxeko argi zerbitzuak jartzen ditu. □

Etxeberri elkartearen barrikotea dago ostiralean

■ Alzueta eta Bereziartuako sagardoak ■ Nahi duenak joatea libre ■ Bihar da apuntatzeko azken eguna.

JOAN deneko 15 urteotan, garaitsu honetan barrikotea egiten dute Etxeberri elkartearen. Normalean, 70-80 lagun inguru biltzen dira; eta afaltzeko: sagardotegiko menua eta

kafe konpletoa. Antolatzaileek oraindik seguru ez dakite, baina, 2500 Ptaz azpitik izango omen da. Bazkide eta ez bazkide, bihar arte apuntatutako guztiak joan litezke. □

ZINEA TRIKU TABERNAN

Sei pelikula botako dituzte otsaila bitartean

'100 Metro' filmak hasiko du gaur bertan Triku tabernako 'Zine alternatiboa' zikloa. Beste bost tituloak, hauexek: 'El cabo del miedo', 'Pretty Woman', 'Cara a cara', 'Los caballeros de la mesa cuadrada', eta 'La lengua de las mariposas'. Hilabete bakoitzean bi botako dituzte. Pelikula denak gaueko bederatzietan izango dira.

Skoda Octavia. Bizitza osoa aurretik.



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.* (11.990,19 euro*)
*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

MUS TXAPELKETA KARABELEN ATZO

Angel eta Constantinok irabazi dute

■ Bigarren: Antonio-Sardo; hirugarren: Jose Perez-Arto ■ Bihar, berriz, Elur-Txori elkarteko txapelketa hasiko da: bikoteka eta buruz-buru.



Ezkerretik: mus eta tute txapelketako irabazleak, sariekin.

AURTEN ere, iazko bikote berak irabazi du Karabelgo Mus Txapelketa. 'Etxekoandre saria' berriz, Xabier Mingo, Pedro Abad, Migel Irujok, zozketaz. Herenegun, berriz, Manolo eta Ricardok jantzi zuten tuteko txapela.

ELUR-TXORIKOA, HASI Partidak astearte, asteazken eta ostegunean jokatuko dira. Aste honetan 15: 9 bikoteka eta 6 buruz-buru. Lehenengo faseko partiduak abenduaren 21erako jokatutako beharko dute. □

HERNANIKO EHIZA TXAPELKETA

Ehiza gutxi eta Santakruz aurrena

■ Hiru aurrenekoek launa pieza bota dituzte ■ Datorren igandean azken txanda.

80 faisana eta eper askatu eta 34 bota zituzten Ehiza Txapelketako lehen igandean. Kontrolero hamaiketako koxkorak animatu zuen giroa zerbait; gainontzean bi komentario bakarrik entzuten ziren: "ba, ezerrez!" eta "hotzik sartzen ez badu, alper-alperrrik!"

Arkaitz Santakruzek 3 eper eta faisana bota ditu (406 p); bigarren eta hirugarren: Jo-setxo Vacas eta Juan Otegi, bakoitzak bi eper eta bi faisana (404 p). Urko Madinak altxa du gaurko oilagor bakarra -bi aldiz-, baina ez du bota. □



Ehiztariak eta epaileak, atzo botatako piezak erakusten.

3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Hernanik 2 - San Pedrok 1

■ Azken minutuetan sartu zituzten golak ■ Hernanik 3 partidu daramazki galdu gabe.



Bi taldeetako jokalariek atzoko partiduan.

KOSTATA baina lortu zuten etxekoek Sestaoko taldeari irabaztea. Partiduan zehar bi taldeek izan zituzten aukerak; agian garbienak Hernanik.

BUKAERA BIZIA

Bigarren zatiko 35garren minutuan iritsi zen txuri berdeen lehen gola: Dovalek sartu zuen. Euforiak ez zuen asko iraun, ordea, bizkaitarrek hurrengo jokaldian berdinu zuten-eta. Bost minutu-ra sartu zuten etxekoek garai-pena eman ziena: Eneko Goiak. □

ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA

3. maila

Hernani 2-San Pedro 1

Emakumezkoen Liga:

Hernani 7- Zarautz 0

Gorengo maila

Mundarro 2 -Hernani 1

Gazteen liga nazionala:

Alaves 2-Hernani 2

Gazteen 2.maila:

Hernani 2- Urnieta 5

Kadeteen Ohorezko maila:

Arrasate 3 - Hernani 4

WATERPOLOA

Euskadiko 2. Maila

Hernani 10 - Barakaldo 4

**Hernaniko
Kronika**
interneten
www.hkronika.com

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebate.

■ **Aurreko astekoa:** Akola gaineko puntu geodesikoa.

■ **Asmatu dutenak:** Joxe Mari Zelarain, Maddi Iradi, Roxario Pikabea eta Marian Apezetxea.

■ **Saria:** *Venta Berri* jatetxean bi lagunentzako afaria eta *Kronikaren* urteko bilduma (urte bukaera bitartean gehien asmatzen dituenak).

HITZ BITAN

✓ SKATE, ROLLER ETA BIZIKLETAKO TALDEA

Asteartean beste bilera arratsaldeko 17:30etan.

Ongintzako *Kale Hezitzaileak* aisialdiko gauzak egiteko taldea osatu nahian dabilta. Aurreko asteartean egin zuten lehenengo bilera eta gaztetxoak zerbait egiteko gogoz etorri ere bai. Orduan, ordea, batzuek azaldu ezin eta bihar, abenduak 12, beste bilera egitea pentsatu zuten, ideak bota eta lanean hasteko. Bilera KH-en lokaletan, Sandiusterrri behean.

✓ WATERPOLOA

Hernanik 10-4 irabazi dio Barakaldori.

Hernaniarrek erraz menderatu dituzte bizkaitarrak. Emaitzak oraindik eta alde gehiago ere izan zezakeen: Barakaldoko atezainak parada asko egin du, eta hernaniarrek ere gol behar zuten asko huts egin dituzte. Lider jarraitzen dute eta oraindik partidurik galdu gabe! Datorren astean Osasunaren kontra, kanpoan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:
943 550093
▶ Udaltzaingoa:
943 333288
▶ DYA:
943 464622
▶ Anbulatorioa:
943 557750

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Gomez Justel
Nagusia, 15
☎ 943 554892
▶ Gaeuz: Urbistondo
Lasarte. S. Francisco, 1
☎ 943 366567

✚ ASTEARTEA

▶ Egunez: Bulnes
Etxeberri

☎ 943 557738

▶ Gaeuz: Iturralde
Usurbil. 13 poligonoa, 9
☎ 943 363395

✚ ASTEAZKENA

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz, 48
☎ 943 551793

▶ Gaeuz: Oa
Usurbil. 1 poligonoa, 1
☎ 943 376076

IRRATIAK

Hernaniko ahotsa (F.M. 99.2): 11:30etan: *Hemen eta Munduan* taldekoak Nizatik bueltan. 12:00etan: Hernaniko bazterren berri Luis Mari Zalduak. 16:00etan: *Desobediencia Zibila* mahai ingurua.

IRAGARKI MERKEAK

■ Furgoneta bat daukat saltzeko: Zazpi eserlekuko Mercedes Vito bat; hiru urte eta erdi ditu.

☎ 943-332937



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak